



Abenduaren 1a eta 3a bitartean, Hirigune Historikoak berrindartzearen inguruko mundu osoko 20 esperientzia jasoko ditu Vitoria-Gasteizek

- Topaketan Euskadiko, Estatuko, Europako eta Amerikako adituek hartuko dute parte
- Hainbat gai azpimarratuko ditu topaketak, besteak beste, nazioarteko lankidetzak eta ondarearen zaintza eta berrindartzea

- **DATAK**
2010EKO ABENDUAK 1-2-3
- **LEKUA**
VILLASUSO JAUREGIA
- **IZENBURUA**
KULTURA ONDAREARI BURUZKO IX FORO IREKIA
- **HIZLARIAK:**
 1. **Iñigo Enríquez**, URBANA Ekimena Programako Zuzendaria.
 2. **Eduardo Mendoza Garriga**, 2010eko Planeta Saria.
 3. **Frédéric Vacheron**. UNESCO Montevideo, Latinoamerikarako eta Kariberako Erregioko Zientzia Bulegoa.
 4. **Idalmis Saura Hernández**, La Habana Hiriko Historialariaren Bulegoa. Cuba.
 5. **Patricia Roland**, Lurralde Banaketa eta Habitata Montevideoko Udaltzaintzaren zuzendaria.
 6. **Pablo García-Pellicer López**, Arquitecto, Almeriako Udala
 7. **Pedro Marín Cots**, Europako Programen Zerbitzu Burua, OMAU Hiri Ingurumenaren Behatokiko Zuzendaria, Malagako Udala.
 8. **María Jesús Firmat Pérez**, Sustapen, Turismo, Merkataritza eta Artisautza Arloko zuzendaria. Cadizko Udala
 9. **Ramón Eduardo Veloso Rodríguez**, Ogasuna eta Ondarea, Ekonomia Sustapena eta Enplegua, Administrazioaren Modernizazioa eta Turismo Sustapena Saileko zinegotzi-koordinatzailea, Ferrolgo Udala.
 10. **Mario Víctor Sanjuán García**, Burgos Hiriko Plan Estrategikorako Elkartearen Kudeatzailea, Burgosko Udala.
 11. **Gonzalo Arroita**, Vitoria-Gasteizko Hiri Historikoaren Berrindartze Integralerako Agentziako (VGHHBIA) Zuzendaria.
 12. **Carlos Rodríguez**, VGHHBIAko Berrindartze Ekonomikoko Zuzendaria.
 13. **Christina Werkmeister, Verónica Werkmeister & Brenan Duarte**. GIM Hiri Margotua.
 14. **Angel María Nieva García**, Bilbao Ría 2000ko Zuzendaria.
 15. **Begoña Gonzalo Orden**, Leongo Udaleko Hirigintza Saileko Kanpoko Finantzazioa duten Inbertsio Proiektu eta Programetako eta Europako Proiektuetako Arduradun Teknikoa.
 16. **José María González Odériz**. Iruñeko Udaleko Kanpo Finantzazioko Unitateko Programen Arduraduna.
 17. **Rinio Bruttomesso**, International Centre Cities on Waterko Zuzendaria.
 18. **Ana Paula Delgado**, Porto Vivo, SRU - Sociedade de Reabilitação Urbana da Baixa Portuense, Sako Zuzendari Exekutiboa.
 19. **Frédérique Calvanus**, Baionako Udaleko Hirigintza Zuzendaritzako LINKSeko Koordinatzailea.
 20. **Francisco Azconegui**, Vitoria-Gasteizko Hiri Historikoko Lanbideen Zentroko Zuzendaria.
 21. **Alberto Escovar Wilson-White**. Escuela Taller de Bogotáko zuzendaria.
 22. **Andrea Cerletti**, Buenos Aires Hiriko Gobernuako Hirigune Historikoko Zuzendaritza Orokorreko Jarduera, Lotura eta Hedadura Saileko Koordinatzailea.

Vitoria-Gasteizko Hiri Historikoaren Indarberritze Integralerako Agentziak eta Udalaren **Ekonomia Sustapenerako eta Plangintza Estrategikorako Sailak Villasuso Jauregian, abenduaren 1a eta 3a bitartean, Kultura Ondareari buruzko IX. Foro Irekia** antolatu dute. Hiri anfitrioiaren ikuspegitik, Hiri Historikoen Nazioarteko Biltzar horren bidez, Euskadiko hiriburuak eta Araba osoak nazioarteko lankidetzan eta ondarearen zaintzan eta berrindartzean duten esperientzia handitzen jarraitu nahi da. Helburu hori lortzeko, topagune horren hausnarketa-gai nagusia honako hau izango da: **“kultura-ondarearen eginkizun soziala. URBAN eredia, Hirigune Historikoen Indarberritze Integralerako tresna gisa”**.

Biltzarraren egitaraua

Europar Batzordearen **“2007-2013ko URBANA Ekimenenean” (URBAN)** parte hartzen duten hirietako bat da Vitoria-Gasteiz, eta Villasuso Jauregian antolatu duen ekitaldian honako hauek bilduko dira: 1994an hasi zen programan parte hartu edo parte hartzen duten Hirigune Historikoak dituzten Europako hiriak eta Gasteizko Hiri Historikoarekin batera **garapenerako ondare-lankidetzako proiektuak** garatzen dituzten nazioarteko erakunde eta hiriak.

Hiru egun horietan, Europako hiri historikoen testuinguruan, gizarteratzeko, hiria antolatzeko, gizartea eta kultura sustatzeko, berrindartzeko eta ekonomia-jarduera erakartzeko tresna izan diren **URBAN** esperientziak aztertuko dira. Vitoria-Gasteizen esperientzia arrakastatsua ere mintzagai izango da, bertako Hirigune historikoaren garapenerako kultura-ondarearen alorrean izan diren **nazioarteko proiektuen** harira. Hori guztia funtsean praktikara bideratuta egongo denez, zentzu zabalenean errentagarriak suertatu diren esperientziak oinarri hartuz aukeratu dira hizlariak eta hizlari-kideak.

Testuinguru horretan, Espainiako 9 hiri bilduko dira Arabako hiriburuan beren lekukotasuna eskaintzeko: **Vitoria-Gasteiz** hiri anfitrioi, **Bilbo, Iruñea, Almeria, Burgos, Leon, Ferrol, Malaga eta Cadiz**. Gainera, Europako hiru hiriburu ere - **Baiona, Venezia eta Oporto**- bertaratuko dira, haien testigantzak eskaintzera, bai eta Amerikatik datozen beste 4 esperientzia ere -**La Habana, Bogota, Montevideo eta Buenos Aires**-. Vitoria-Gasteizi dagokionez, abenduaren 3an **Gonzalo Arroita**k, HHIIAko zuzendariak, eta **Carlos Rodriguez**ek, ekonomia-sustapenerako zuzendariak, ordezkatu dute Euskadiko hiriburuak.

Esperientzia horiez guztiez gain, beste testigantza nabarmen batzuk ere bilduko ditu Vitoria-Gasteizko topaguneak, esate baterako hasierako hitzaldian. Asteazkenean, abenduaren 1ean, 10:30ean izango da, eta **Eduardo Mendoza, azken Planeta Saria**, izango da hizlari, **“Aberrik gabeko Europa”** gaia jorratzeko.

Vitoria-Gasteizko Erdi Aroko Hirigunean egiten den lana nabarmentzeko balio izango duten beste ekimen batzuen bidez ere osatuko da IX. Foroa. Hala, hasierako egunean, **“VitoriaLaHabanaMontevideoGasteiz, hiri historikoaren eremuak eta denborak”** erakusketa aurkeztuko da Santa Maria Katedralean.

Erakusketa-plataforma hori Vitoria-Gasteizko Udalak bultzatu du eta Euskadiko eta Amerikako erakundeen esku utziko da, plazen eta hiritarren kontakizunaren hariari jarraituz, gure Hirigune Historikoen ondare material eta ez-materialaren inguruan lan egiteko. Erakusketa hori La Habana hiriko Historiagilearen Bulegoarekin eta Montevideoko Latinoamerikako Arkitekturaren Dokumentazio Zentroarekin lankidetzan egin da, eta aurkezpenean Euskal Herriko bertsolariak, Uruguako *payadoreak* eta Kubako *decimistak* izango dira. Ildo beretik, Vitoria-Gasteiz ezagutzera emateko asmoaren barruan, bertaratu diren guztiek bisitaldia egingo dute Vitoria-Gasteizko Katedralean, Erdi Aroko Hirigunean eta harresian zehar.

2008ko Aurrekaria

2008an, Vitoria-Gasteizen bertan, "**Kultura Ondareari buruzko VIII. Foro Irekia, Harresia, Hiri Historikoa antolatzeko Ardatza**" burutu zen eta, hain zuzen, Foro hura garatu izanaren ondorio zuzena da orain egingo den IX. Foroa. Topagune horren bidez, beren ondare-balioak garapenerako eta berrikuntzarako aukeratzat hartuta, etorkizunari begiratzen dioten hirientzat Vitoria-Gasteiz erreferentziako hiri ez ezik, Europako eta Amerika arteko lanerako plataforma ere izatea bilatu zen.

Vitoria-Gasteizko Hiri Historikoa, URBANA Ekimena

Villasuso Jauregia, Martin de Salinas Aretoa

9:00

Akreditatzea eta parte-hartzaileei dokumentazioa ematea

10:00

HASIERAKO EKITALDI OFIZIALA Kultura Ondareari buruzko IX. Foro Irekia
Eskualde Garapeneko Europako Funtsa eta Hiri Ekimenak

Eskualde Garapeneko Europako Funtseko Administrazioako Zuzendariordetza Orokorra
Iñigo **Enriquez**, URBANA Ekimena Programako Zuzendaria

10:30

Hasierako Hitzaldia

Eduardo Mendoza Garriga Jaunaren eskutik, "ABERRIRIK GABEKO EUROPA"
2010eko *Planeta Saria*

11:30

Kafe atsedenaldia

12:00

Erakusketaren Inaugurazioa "VitoriaLaHabanaMontevideoGasteiz, hiri historikoaren eremuak eta denborak", Santa Maria Katedralan
Bertsolariak+decimistak+payadoreak

13:00

Erdi Arokoda Hiriguneari bisitaldi gidatua, URBANA programa, Santa Maria Katedrala eta Vitoria-Gasteiz harresiak

14:30

Bazkaltzeko etenaldia

Ondare-ekimen berritzaileak Iberoamerikan, Vitoria-Gasteizen presentzia aktiboa de Vitoria-Gasteiz

Villasuso Jauregia, Pedro Martinez de Alava Aretoa

16:30

Hitzaldia

Ahozko tradizioa Latinoamerikan eta Kariben

Frédéric Vacheron, UNESCO Montevideo, Latinoamerikarako eta Kariberako Erregioko Zientzia Bulegoa

17:00

Hitzaldia

Esku-hartzeak Hiriguneetan eta Kubako Ondarea

Idalmis Saura Hernández, La Habana Hiriko Historialariaren Bulegoa

ART initiative, Articulating Territorial and Thematic Networks for Human Development PNUD Cuba

17:30

Kafe atsedenaldia

18:00

Hitzaldia

Esku-hartzeak Hirigune Historikoetan eta Uruguako Ondarea

Patricia Roland, Lurralde Banaketa eta Habitata Montevideoko Udal Intendentzian

ART initiative, Articulating Territorial and Thematic Networks for Human Development PNUD Uruguay

18:30

Mahai-ingurua

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila

UNESCO Katalunia

19:30

Erakusketaren inaugurazioa eta "Premio Gubbio América Latina y el Caribe 2009" liburuaren aurkezpena

Zentro Historiko-Artistikoen Erakunde Nazionalea (ANCSA Gubbio Italia) + Buenos Airesko Hirigune Historikoaren Zuzendaritza Nagusia + La Habana Hiriko Historialariaren Bulegoa

Europako Batzordearen eta Espainiako Gobernuaren 2007-2013 URBANA Ekimena

Villasuso Jauregia, Pedro Martinez de Alava Aretoa

9:30

Hitzaldia

Hirigune Historikoen Europako Sarea "Almeriako Protokoloa"
ALMERIAko URBANA Programa

José Antonio Camacho Olmedo, Alkatetza Saileko Zerbitzu Burua, Almeriako Udala

10:00

Hitzaldia

MALAGAko URBANA Programa

Pedro Marín Cots, Europako Programen Zerbitzu Burua, OMAU Hiri Ingurumenaren Behatokiko Zuzendaria, Malagako Udala

10:30

Hitzaldia

CADIZko URBANA Programa

María Jesús Firmat Pérez, Sustapen, Turismo, Merkataritza eta Artisautza Arloko zuzendaria. Cadizko Udala

11:00

Kafe atsedenaldia

11:30

Hitzaldia

FERROLgo URBANA Programa

Ramón Eduardo Veloso Rodríguez, Ogasuna eta Ondarea, Ekonomia Sustapena eta Enplegua, Administrazioaren Modernizazioa eta Turismo Sustapena Saileko zinegotzi-koordinatzailea, Ferrolgo Udala

12:00

Hitzaldia

BURGOSko URBANA Programa

Mario Victor Sanjuán García, Burgos Hiriko Plan Estrategikorako Elkartearen Kudeatzailea, Burgosko Udala

12:30

Hitzaldia

VITORIA-GASTEIZ, 2007-2013 URBANA Ekimena

Gonzalo Arroita, Vitoria-Gasteizko Hiri Historikoaren Berrindartze Integralerako Agentziako (VGHHBIA) Zuzendaria

Carlos Rodríguez, VGHHBIAko Berrindartze Ekonomikoko Zuzendaria

13:00

Mahai-ingurua

EUDEL, Euskadiko Udalen Elkartea

Deusto Business School. Deustuko Unibertsitatea

14:00

Bazkaltzeko etenaldia

Vitoria-Gasteiz Muralismo Tailerra

Villasuso Jauregia, Pedro Martinez de Alava Aretoa

16:30

Hitzaldia

VITORIA-GASTEIZko Ibilbide Muralista

Christina Werkmeister, Verónica Werkmeister & Brenan Duarte

GIM Hiri Margotua

17:30-19:30

BISITALDI TEKNIKOA Vitoria-Gasteizko Hiri Historikoko Ibilbide Muralista
bertsolariak+decimistak+payadoreak + koktaila Erdi Aroko Harresietan

OSTIRALA

abenduak 3

Villasuso Jauregia, Pedro Martinez de Alava Aretoa

Europako Batzordearen URBAN Programa. 1994-2006 esperientziak

Villasuso Jauregia, Pedro Martinez de Alava Aretoa

9:30

Hitzaldia
BILBAO RÍA 2000ko URBAN I Programa
Angel María Nieva García, Bilbao Ría 2000ko Zuzendaria

10:00

Hitzaldia
LEONgo URBAN II Programa
Begoña Gonzalo Orden, Leongo Udaleko Hirigintza Saileko Kanpoko Finantzazioa duten Inbertsio Proiektu eta Programetako eta Europako Proiektuetako Arduradun Teknikoa

10:30

Hitzaldia
IRUÑEko URBAN II Programa
José María González Odériz, Iruñeko Udaleko Kanpo Finantzazioko Unitateko Programen Arduraduna

11:00

Kafe atsedenaldia

11:30

Hitzaldia
VENECIAko URBAN I Programa
Rinio Bruttomesso, International Centre Cities on Waterko Zuzendaria

12:00

Hitzaldia
OPORTOko URBAN II Programa
Ana Paula Delgado, Porto Vivo, SRU - Sociedade de Reabilitação Urbana da Baixa Portuense, SAKo Zuzendari Exekutiboa

12:30

Hitzaldia
BAYONA, LINKS Cultural Heritage and City Development URBACT proiektua
Frédérique Calvanus, Baionako Udaleko Hirigintza Zuzendaritzako LINKSeko Koordinatzailea

13:00

Mahai-ingurua
Herri Administrazioen eta Politiken Nazioarteko eta Iberoamerikako Fundazioa
Donostia, Hirigune Historikoa

14:00

Bazkaltzeko etenaldia

Vitoria-Gasteizko Hiri Historikoaren Nazioarteko Proiektuak Lantegi-eskolak, Hiri Historikoaren motorrak

Villasuso Jauregia, Pedro Martinez de Alava Aretoa

16:30

Hitzaldia **VITORIA-GASTEIZ**
Francisco Azconegui, Vitoria-Gasteizko Hiri Historikoko Lanbideen Zentroko Zuzendaria

17:00

Hitzaldia **BOGOTA, Kolonbia**
Alberto Escovar Wilson-White, Escuela Taller de Bogotáko Zuzendaria

17:30

Kafe atsedenaldia

18:00

Hitzaldia **BUENOS AIRES, Argentina**
Andrea Cerletti, Buenos Aires Hiriko Gobernuko Hirigune Historikoko Zuzendaritza Orokorreko Jarduera, Lotura eta Hedadura Saileko Koordinatzailea

18:30-19:30

Mahai-ingurua
Ingurumen, Lurralde-antolakuntza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritza
Agencia Española de Cooperación Internacional para el Desarrollo (AECID) Lantegi-eskolen Programa

LARUNBATA

abenduak 3

HIZLARIENTZAKO EGITARAUA

Ardoaren eta Gatzaren Katedralak

9:30-14:00

BISITALDI TEKNIKOA Guardia & Añana, bertsolariak+decimistak+payadoreak

14:30-16:30

Bazkaria Guardian
Arratsaldean Vitoria-Gasteizerako itzulera

Prensa kabinetea

Sergio Martinez (669-471997) - sergio@fideliza.es